LEGAZPIKO UDALA

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDEKO ZERBITZU-KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

LEGAZPIKO UDALERRIKO BIDE-GARBIKETA MEKANIZATUAREN ZERBITZUA

1. KLAUSULA. Xedea eta kalifikazioa

Hauxe izango da agiri honen arabera sinatuko den kontratuaren helburua: Legazpiko udalerriko bideen garbiketa mekanizatuaren zerbitzua esleitzea. Aipatutako zerbitzua kontratu-izaera izango duen espedientean jasotako dokumentazio teknikoaren arabera eskainiko da.

Kontratua ingurumena eta lan-osasuna errespetatuko duten metodo, jardunbide eta produktuak erabiliz gauzatuko da eta, besteak beste, hondakinak behar bezala kudeatzea barne hartuko du.

Definitutako kontratuak zerbitzuen administrazio-kontratuaren kalifikazioa du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 15. artikuluarekin bat etorriz, eta erregulazio harmonizatuaren mende dago.

Kontratuaren xedea ez da sortatan bereizten, espedientean azaldutako arrazoiak direla bide.

Kontratuaren xedea ondorengo CPV kodearekin identifikatzen da: 90611000 – 6: Kaleak garbitzeko eta ekortzeko zerbitzuak.

Definitutako kontratua datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende dago.

2. KLAUSULA. Hautatzeko eta esleitzeko prozedura

Prozedura irekia sinplifikatua izango da kontratua esleitzeko modua; beraz, interesa duen edozein enpresarik aurkeztu ahal izango du proposamena. Debekatuta dago lizitatzaileekin kontratuaren baldintzak negoziatzea.

Kontratuaren esleipena, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa oinarri hartu eta esleipenerako irizpide-aniztasuna kontuan hartuta erabakiko da, 10. klausulan jasotakoarekin bat etorriz.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

LEGAZPIKO UDALA

3. KLAUSULA. Kontratatzailearen profila

Gardentasuna segurtatzeko eta kontratatzeko jarduerari buruzko informazioa edonork jaso dezan, eta bestelako publizitate-bideak erabiltzearen kaltetan gabe, Udalak Kontratatzailearen Profila du eta ondorengo Web orrialdetik sartu ahal izango da bertara: www.legazpi.eus.

4. KLAUSULA. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio estimatua

4.1 **Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua**: 263.200,00 €/urteko gehi BEZaren % 10ari dagozkion 26.320,00 €. Guztira: 289.520,00 €/urteko, BEZa barne.

4.2. **Banakatzea**:

1	*Langileak*	130.000,00 €
2	*Makineriaren amortizazioa*	43.000,00 €
3	*Finantziazioa*	7.000,00 €
4	*Kontsumoak*	15.000,00 €
5	*Makineriaren mantentze-lanak*	20.000,00 €
6	*Aseguruak*	2.000,00 €
7	*Langileen jantziak*	2.000,00 €
8	*Instalazioak*	16.000,00 €

Gastu orokorrak % 7: 16.450,00 €

Industria-etekina % 5: 11.750,00 €

BEZa, % 10: 26.320,00 €

4.3. **Kontratuaren balio estimatua:** 526.400€ (BEZik gabe).

5. KLAUSULA. Kreditua izatea

Kontratua udal aurrekontutik ordainduko da; aurrekontu horretan kreditu nahikoa dago.

6. KLAUSULA. Prezioak berrikustea

Ez dira prezioak berrikusiko.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

7. KLAUSULA. Kontratuaren iraupena eta kokapena

Zerbitzua prestatzeko epe totala 1 urtekoa izango da, kontratua formalizatuko den biharamunetik edo kontratu-agirian zehaztutako egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, urtebeteko iraupena izan dezakeen luzapen bat egon daiteke, dena den, luzapenak barne, kontratuak ezingo du bi (2) urte baino gehiago iraun.

Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatzea eta derrigorrezkoa izango da enpresariarentzako, baldin eta kontratuaren iraunaldia bukatu baino bi hilabete lehenago jakinarazten bada.

8. KLAUSULA. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea

Jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainolek zein atzerritarrek, aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, baldin eta kontratatzeko debekuren bat ez badute eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala frogatzen badute.

1. Enpresarien **<u>jarduteko gaitasuna</u>** honela egiaztatuko da:

a) **Pertsona juridikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna, eraketaren eskriturak edo agiriak, estatutuak edo fundazio-egintzaren agiria aurkeztuz egiaztatuko da. Agiri horietan bere jarduera zuzentzen duten arauak jasoko dira eta, balegokio, dagokion erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo dira, pertsona juridikoaren motaren arabera.

a) **Pertsona fisikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna Nortasunaren Agiri Nazionalaren fotokopia aurkeztuz egiaztatuko da; halaber, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, dagokion epigrafean, alta emanda daudela egiaztatuko da.

b) **Europar Batasuna osatzen duten estatuetako bateko nazionalitatea duten edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatutuetako enpresari ez espainolen jarduteko gaitasuna**, ezarrita dauden Estatutuaren legeriarekin bat etorriz erregistroan egindako inskripzioarekin egiaztatuko da; edo aplikagarriak diren komunitateko xedapenen arabera, eta araudian jasotako terminoetan, egindako zinpeko aitorpenarekin eta egiaztagiriarekin.

c) **Atzerriko gainerako enpresariek** enpresa helbideratuta dagoen Estatuko Espainiako Bulego Diplomatiko Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak luzatutako txostenarekin egiaztatuko dute beraien jarduteko gaitasuna.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

2. Enpresariek, **kontratatzeko debekuren batean sartuta ez daudela**, epaile-lekukotzaren edo ziurtagiri administratiboaren bidez egiaztatu ahalko dute, dagokionaren arabera.

Agintari eskudunak dokumentu hori luzatu ezin duenean, agintari administratiboaren, notario publikoaren edo erakunde profesional kualifikatuaren aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpenarekin ordeztu ahal izango da.

3. Enpresariaren kaudimena:

- Enpresarien **kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** egiaztatzeko, *urteko negozio-bolumena edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumena aurkeztu beharko da. Enpresaburuaren eratze-dataren edo jardueren hasiera-dataren eta eskaintzen aurkezpen-dataren arabera eskuragarri dauden azken hiru ekitaldien arteko ekitaldi onenari egingo dio erreferentzia, kontratu honen urteko prezioaren berdina edo handiagoa den zenbatekoan. (*289.520,00 €/urteko, BEZa barne*).*

Ez da kaudimen-baldintza hori betetzen ez duen enpresarik onartuko.

- Enpresarien kaudimen teknikoa edo profesionala ondorengoak aurkeztuz egiaztatuko da:

a) Azken hiru urteetan eskainitako zerbitzu edo egindako lan nagusien zerrenda, zehazki kontratu honen xede direnen berdinak edo antzekoak. Zehaztu behar dira horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua).

Eskainitako zerbitzuak edo egindako lanak organo eskudunak luzatutako edo onartutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira hartzailea sektore publikoko erakundea denean; hartzailea subjektu pribatua denean hark luzatutako egiaztagiria edo, horrelakorik ez dagoenean, enpresariaren aitorpena aurkeztu beharko da, prestazioa egin dela egiaztatuko duten dokumentuekin batera.

Zerbitzu bat xede den zerbitzuaren berdina edo antzekoa den zehazteko, CPV kodearen lehenengo hiru digituak hartuko dira kontuan.

Ez da kontratu honen helburu diren prestazioen berdinak edo antzekoak izan diren 2 prestazio eskaini ez dituen enpresarik onartuko.

b) Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritzako langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak, eta, bereziki, subrogazioaren xede ez den kontratua gauzatzeko ardura duten langileenak.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

Ildo horretan, enpresak kontratuaren betearazpenari atxiki beharko dio **Enpresaren Ordezkari** izango den eta kontratatutako zerbitzu guztien zuzeneko arduradun gisa jardungo duen pertsona bat, eginkizun hori garatzeko behar adinako kualifikazioarekin, eta bere lanaldiaren % 20 gutxienez Legazpiko zerbitzuan jardungo du. Pertsona hori zuzenean egongo da harremanetan udaleko zerbitzu teknikoekin, eta behar bezala jakinaraziko dizkie zerbitzuaren garapenean aurkitzen dituen arazo guztiak, bai eta zerbitzua arrazionalizatzeko eta eraginkorragoa izateko egin ditzakeen iradokizunak ere. Era berean, langile bakoitzak egindako lanen berri emango du egunero (parteekin), baita bide publikoetan, hiri-altzarietan eta abarretan antzemandako edozein gorabeheraren eta gabeziaren berri ere. Hilero bildu behar da udal-teknikariarekin, eta txosten bat aurkeztu behar du egindako lanei, bajei, altei, gorabeherei eta abarri buruz. Pertsona horrek libre egon behar du eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan. Halaber, Europako Errefentzia Markoko B2 euskara-gaitasuna egiaztatzen duen titulua duela egiaztatu beharko du.

Ez da kaudimen-baldintza hori betetzen ez duen enpresarik onartuko.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 77.1 b) artikuluan jasotakoaren arabera, zerbitzu-kontratuetarako ez da enpresariaren sailkapena exijituko. Lizitazioaren iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratua arautuko duten agirietan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala egiaztatzeko gutxieneko irizpideak eta baldintzak ezarriko dira, bai Legearen 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eska daitekeen gutxieneko sailkapen eta kategoria talde edo azpi-taldeen arabera; beti ere, kontratuaren helburua indarrean dauden sailkapen talde edo azpi-talderen bateko sailkapen-eremuan sartuta baldin badago. Horretarako, kontratuaren CPV delakoari erreparatuko zaio, 2002ko azaroaren 5eko Europar Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2195/2002 Araudiak (CE) onartutako kontratu publikoen Hiztegi orokorraren arabera.

Horrelakoetan, enpresariak bi modutan egiaztatu ahal izango du bere kaudimena: kontratuari dagokion sailkapen taldean edo azpi-taldean eta sailkapen-kategorian sailkatuta dagoela erakutsiz edo kontratuaren agirietan zehaztu diren eta lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean exijitutako kaudimenaren baldintza espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz.

Helburu horretarako, kontratu honen xede den zerbitzuaren sailkapena ondorengo hau da: 2. Kategoria, U Taldea, U.1. Azpitaldea.

4. Lizitatzaileen eta Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egoteak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, enpresarien gaitasun-baldintzak egiaztatuko ditu honako arloei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, gaikuntza profesional edo enpresariala, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala, sailkapena eta jasotako gainerako inguruabarrak, eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekuak edo debekurik ez izana.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

9. KLAUSULA. Proposamenak eta dokumentazio administratiboa aurkeztea

9.1 Aurretiko baldintzak.

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten agirietan eta dokumentazioan aurreikusitakora egokituko dira. Eskaintzak aurkezteak, enpresariek aipatu klausulak edo baldintzak, salbuespenik gabe eta baldintzarik gabe, onartzen dituztela esan nahiko du.

Erakunde lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du eta proposamena bakarka aurkeztu badu ezingo du enpresa-batasun batekin beste bat aurkeztu edo ezingo du enpresa-batasun bat baino gehiagoetan ageri. Arau horiek hausteak bera ageri den eskaintza guztiak ez onartzea ekarriko du berekin.

9.2 Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea

Lizitazioa bitarteko elektronikoen bitartez izapidetuko da. Lizitatzaileek ezinbestean bitarteko elektronikoak erabiliz prestatu eta aurkeztu behar dituzte euren eskaintzak Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez: **www.contratación.euskadi.eus** Horrek esan nahi du:

- Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.
- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.
- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa.

Proposamenak, eta derrigor aurkeztu beharreko dokumentazioa, **30 egun naturaleko** epean aurkeztuko dira, lizitazioaren iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaliko den egunetik kontatzen hasita. **(Proposamenak aurkezteko epea bukatuko den egun zehatza lizitazioaren iragarkian argitaratuko da)**

Dokumentazioa, jakinarazpenak eta komunikazioak Agiri honen I. Eranskinean jasotakoaren arabera bidaliko dira.

Proposamenak sekretuak izango dira eta horretarako, izaera hori bermatuko duten bitartekoak erabiliko dira lizitazio publikoa egin arte.

9.3 Lizitatzaileak informatzea

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138. artikuluan jasotako informazio gehigarria edo osagarria eskatu behar denean, Administrazio kontratatzaileak informazio hori, behinik behin, eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino sei egun lehenago eskaini beharko du, eskaera hori aipatu epea amaitu baino hamabi egun lehenago eskatu bada betiere. Eskaera hori lizitazioaren iragarkian aurreikusitako fax-zenbakian edo posta elektronikoaren helbidean egingo da.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

9.4 Proposamenen edukia

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko dira. Proposamenak lizitatzaileak sinatuta egongo dira eta artxiboaren izena honakoa dira: «Legazpiko udalerrian garbiketa mekanizatuaren zerbitzua kontratatzeko lizitaziorako proposamena». Hauexek dira artxiboen izenak:

— «A» Artxibo elektronikoa: Agiri administratiboak

— «B» Artxibo elektronikoa: Haztapena balio-judizio baten mende dagoen dokumentazioa.

— «C» Artxibo elektronikoa: Proposamen ekonomikoa eta automatikoki kuantifika daitekeen dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzean sartuko diren dokumentuak jatorrizkoak edo egiazkotutako kopiak izango dira, indarrean dagoen Legeriarekin bat etorriz.

Artxibo bakoitzean ondoko agiriak sartuko dira; agiri horiek zenbatu egingo dira eta zenbaki horien zerrenda ere sartuko da:

«A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA:
AGIRI ADMINISTRATIBOAK

Hauek aurkeztuko dira:

Europako kontratazio Agiri bakarra (EKAB):

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da. Agiri hori **II. Eranskinean** jasotako jarraibideen arabera beteko da, bertan eskaintzen den inprimaki eredura egokituta eta lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta aurkeztuko da.

«B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA:
BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ HAZTATUKO DEN DOKUMENTAZIOA

Balio-judizioaren mendeko irizpideak balioesteko beharrezkoak diren agiriak sartuko dira. (10. klausula ikusi)

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

LEGAZPIKO UDALA

«C» ARTXIBO ELEKTRONIKOA:
PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA.

Hauek sartuko dira:

a) Proposamen ekonomikoa.

Izen-deiturak: _____

Jakinarazpenetarako helbidea: _____

IFZ:_____

Ordezkatzen duen entitatea: _____

IFZ: _____

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean iragarri den eta prozedura ireki bidez _____ zerbitzuaren kontrataziorako espedientearen berri izan ondoren, kontratuaren oinarri den Agiria ezagutzen dudala eta osorik onartzen dudala adierazten dut. Lizitazioan parte hartzen dut eta kontratuaren helburua urteko honako prezioan gauzatzeko konpromisoa hartzen dut: _____ **€**, gehi %____(e)ko BEZari dagokiona.

Guztira: **_____ €/**urteko, BEZa barne).

_____n, 20__ko .....ren .....(e)an.

Lizitatzailearen sinadura,

Sin.: _____.».

b) Prezioaz gain, era automatikoan kuantifikatu behar diren eskaintzaren gaineko agiriak. (10. klausula ikusi)

10. KLAUSULA. Esleipenerako irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza hoberena zein den zehazteko, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa oinarri hartu eta esleipenerako irizpide anitzak hartuko dira kontuan:

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25
EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

1. Eskainitako preziorik onena. 45 puntura arte.
2. Memoria teknikoa. 27 puntura arte.
3. Makinen antzinatasuna: 10 puntura arte.
4. Ziurtagiriak. 9 puntura arte.
5. Erregai alternatiboak (elektrikoak, hibridoak, GNL, etab.) erabiltzen dituzten ibilgailuak erabiltzea. eta Legazpiko udalerrian kargatzeko edo hornitzeko gunea izatea. 9 puntura arte.

10.1. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak:

1. Eskainitako preziorik onena. 45 puntura arte.

Gehieneko puntuazioa (45 puntu) emango zaio preziorik merkeenari, eta gainerako eskaintzei formula honen araberako puntuazioa emango zaie:

$$V = \frac{\text{Eskaintza ekonomikoena} * 45}{\text{Baloratzen den eskaintzaren zenbatekoa}}$$

Lizitatzaileak **nahitaez** adierazi beharko du, urteko aurrekontuaren desglosea ondorengo unitateen arabera osatuta:

* GIZA BALIABIDEAK: kostuak adieraziz (urteko eta/edo lanaldiko).
* BALIABIDE MATERIALAK ETA LANTALDEAK: Unitate-kopurua, ezaugarriak (marka eta modeloa) eta erosketa-kostua. Halaber, horietako bakoitzaren honako datuak: amortizazioa, finantziazioa, amortizazio-epea eta kontsumo gastuak, mantentze-lana, konponketak,… eta abar.
* INSTALAZIO FINKOAK: Instalazio-mota, unitate-kopurua eta, horietako bakoitzaren alokairu/erosketa kostua, mantentze-lanen kostuak eta gainerako gastuak (argia, ura, aseguruak, pasabideak,…)
* BALIABIDE KOMUNAK ETA ZEHARKAKOAK: Aurreko ataletan bezala desglosatuko dira, giza baliabideak, baliabide materialak eta/edo lantaldeak edo instalazio finkoak direnaren arabera.
* GASTU OROKORRAK, INDUSTRIA-ETEKINA ETA ZERGAK: Portzentajeak adieraziko dira.
*"PREZIO UNITARIOEN KOADROA", eskainitako proposamen ekonomikoaren arabera eta eskatutakoa zehaztuz. Baita orduko/prezioa aparteko zerbitzuetarako.

2. Makina nagusiaren (EKORTZE- MAKINA) antzinatasuna: 10 puntura arte.

- Makina berriari edo 6 hilabete baino gutxiagokoari, 10 puntu emango zaizkio.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

- 5 puntu emango zaizkio 6 hilabete eta egun batetik urtebetera bitarteko antzinatasunari.
- 4 puntu emango zaizkio urtebete eta egun batetik 2 urtera bitarteko antzinatasunari.
- 3 puntu emango zaizkio 2 urte eta egun batetik 3 urtera bitarteko antzinatasunari.
- 2 puntu emango zaizkio 3 urte eta egun batetik 4 urtera bitarteko antzinatasunari.
- Puntu 1 emango zaizkio 4 urte eta egun batetik 5 urtera bitarteko antzinatasunari.
- 0 puntu, antzinatasuna 5 urte baino gehiagokoa bada.

3. Ziurtagiriak. 9 puntura arte.

Ziurtagiri hauek izatea puntuatuko da: Bideak eta kaleak garbitzeko zerbitzuari dagozkion kalitatea, ingurumena eta laneko segurtasuna eta osasuna.

- Kalitate-ziurtagiriak (ISO 9.000, baliokideak,…) 3 puntu.
- Ingurumen arloko ziurtagiriak (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan, baliokideak,…): 3 puntu.
- Segurtasun eta lan-osasun arloko ziurtagiriak (OHMAS, baliokideak….) 3 puntu.

4. Erregai alternatiboak (elektrikoak, hibridoak, GNL, etab.) erabiltzen dituzten ibilgailuak erabiltzea. eta Legazpiko udalerrian kargatzeko edo hornitzeko gunea izatea. 9 puntura arte.

3 puntu emango dira erregai alternatiboren bat (elektrizitatea, gas naturala, hidrogenoa, propanoa) erabiltzen duen makina edo ibilgailu bakoitzeko, gehienz 9 puntura arte.

***Hauek bakarrik baloratuko dira: Legazpiko udalerrian kaleak garbitzeko zerbitzurako erabiliko diren ekortze-makinak, baldeagailuak eta ibilgailuak.

***Irizpide hori betetzen dela egiaztatzeko, ibilgailuaren dokumentazio teknikoa eta hornidura-puntuari buruzko zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dira.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

10.2 Balio-judizioaren mendeko haztapenaren araberako irizpideak:

Memoria teknikoa. 27 puntura arte.

Kontratuaren xedearen azalpena: Gutxi gorabehera, 5 orri DIN A4 bi aldetatik idatzita; letraren tamaina: 10.

a) Kontratuaren xedearen definizioa (0-2 puntu)

Atal honetan 0,5 punturekin baloratuko da kontratuaren xedearen ideia nagusiaren deskribapena. Puntuazioa gehitu egingo da ideiaren garapenaren eta zehaztasunaren arabera. Kontratuaren helburuaren interpretazioa lehenetsiko da.

b) Kontratuaren analisia: (0-13 puntu)

1.- Zailtasun nagusien antzematea. (0-3 puntu)

Kale garbiketaren kontratuetan oso inportantea da urtean zehar aurki daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta zerbitzuaren garapen naturala galaraziko duten ustekabeak saihestea. Horregatik, proiektu hau gauzatzean aurki ditzakegun zailtasun nabarmenenak zerrendatu dira. Hona hemen aipatu eragozpenak:

- Aintzat hartu beharreko zailtasunak. 0,5 puntu aurkeztutako zailtasun bakoitzeko.

2.- Antolaketa orokorra (0-10 puntu)

Atal honetan zerbitzuaren antolaketa baloratzen da zerbitzuak antolatzen dituen proposamenen planteamendua lehenetsiz ondorengo hauek egiaztatzen badira: Trafikoaren azterketa, gune desberdinen azterketa, eremu bakoitzaren aldizkakotasuna, aurreikusitako errendimenduak, errendimenduen egiaztatzea,

- Makineriak egingo dituen ibilbideetako trafikoaren azterketa, urteko kilometroak murrizteko xedearekin. (0-2 puntu)
- Auzo/gune bakoitzaren garbiketa beharrak egokitzea, erabileraren eta urteko sasoien arabera. (0-2 puntu)
- Gune bakoitzaren aldizkakotasuna. (0-2 puntu)
- Aurreikusitako errendimenduak. (0-2 puntu)
- Koherentzia lanen eta errendimenduen artean. (0-2 puntu)

Esleituko den puntuazioa ondorengo eran banatuko da:

- Aurkezten ez badu. (0 puntu)

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25
EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

- Ekipoekin eta makineriarekin aurkezten badu. (2 puntura arte).

c) Mantentze-lanen plana. (6 puntura arte).

Atal honetan makinen mantentze-lanen antolaketa baloratzen da, eta planteamenduan lehentasuna emango zaie jasangarriak diren proposamenei eta atmosferara egiten diren emisioen mailak murrizteari, euri-uren saneamenduari eta kutsadura akustikoari, zarata, uraren eta energiaren kontsumoa murriztea ahalbidetzen badute, betiere horien hobekuntza frogatzen bada, makina edo prozedura konbentzionalei dagokienez.

- Gas-aireratzeak murriztea. (0-2 puntu)
- Euri-uren saneamendura hondakinen isurtzea murriztea. (0-2 puntu)

Ekipoek ur (litro/metro koadroko) eta energia (Kwh/metro koadroko) gutxiago kontsumitzea.

- Hots-kutsadura murriztea. (0-2 puntu)

Hots-maila txikiagoak.

Hori baloratu ahal izateko, lizitatzaileak zerbitzua eskaintzean erabiliko duen makineriaren zerrenda bat erantsi beharko du, makinen potentzia, hots-mailak eta ur eta energia kontsumoak adieraziz eta dagozkien egiaztagiriekin.

d) Proposatutako hobekuntzen kalitate handiagoa: gehienez 6 puntu.

Hobekuntza horien artean hauek sar daitezke:

- Hobekuntzak garbitzeko prozeduretan. Ingurumen arloko irizpideak. 0-1 puntu.
- Hobekuntzak garbiketa-produktuetan. Ingurumen arloko irizpideak. 0-1 puntu.
- Hobekuntzak zerbitzuan. Eskain daitezkeen beste zerbitzu batzuen proposamenak. 0-4 puntu.

11. KLAUSULA. Aldaerak onartzea

Ez dira aldaerak onartuko.

12. KLAUSULA. Eskaintza anormalki baxuak

Eskaintzak baloratzeko irizpideetan ezarritako parametroak aplikatu ondoren, horietako bat anormala izan daitekeela antzemanez gero, bost eguneko epea emango zaie lizitatzaileei eskaintza horiek, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149.4 artikuluan zehaztutako irizpideen arabera, baldintza horietan gauzatzea ahalbidetuko dizkieten egoerak behar bezala justifika ditzaten.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Eskaintzen izaera anormala ondorengo parametroen arabera antzemango da: eskaintza lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 15 unitate txikiagoa denean.

Justifikazioak jaso ondoren, Mahaiak txosten teknikoa eskatuko du. Txosten hori, gehienean, baldintza teknikoen agiria, proiektua edo kontratuaren azterketa ekonomikoa, edo horiek guztiak, egin dituen funtzionarioak idatziko du. Bertan, eskaintza bere horretan mantentzeko lizitatzaileak eman dituen arrazoiak aztertuko ditu zehatz-mehatz.

Edozelan ere, ez dira beheregi jotako eskaintzak onartuko, baldin eta azpi-kontratazioaren gaineko araudia urratzen dutela edo ingurumen, gizarte edo lan arloan (indarrean dauden sektoreko lan-hitzarmenak barne), nazio nahiz nazioarte mailan, aplikagarriak diren obligazioak betetzen ez dituztela egiaztatzen bada.

Ez proportzionaltzat jotako eskaintza aurkeztu duten kontratisten arrazoiak eta horiek aztertu dituen udal teknikariaren txostena ikusi ondoren, Kontratazio Mahaiak, arrazoiak emanez, eskaintza onartzea edo kanporatzea proposatuko dio kontratazio organoari. Eskaintzak baloratzean ez dira anormaltzat jotako proposamenak sartuko, harik eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149. artikuluan ezarritako prozedura jarraitu arte; hau da, eskaintzaren bideragarritasuna justifikatuko ez den arte.

13. KLAUSULA. Esleitzeko lehentasunak berdinketa emanez gero.

Ezarritako balorazio-irizpide guztien haztapena egin ondoren bi edo eskaintza gehiagoen artean puntuazio-berdinketa emanez gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 147.2 artikuluan aurreikusitako irizpideak erabiliko dira berdinketa hausteko.

Atal honetan jasotako berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak berdinketa emango den unean aurkeztuko dituzte lizitatzaileek eta ez hori baino lehen.

14. KLAUSULA. Kontratazio-mahaia

Mahaiburua: Eric Galvez, Zinegotzia.

Mahaikideak:
Alonso Francés, Udal Arkitekto Teknikoa.
Iñaki Gastañares, udal idazkaria.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Fernando Arakama, udal kontu-hartzailea.
Ainhoa Urruela, Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria.
Alberto Bezunartea, Legazpiko Berdeak + Independientes taldeko zinegotzia.

Idazkaria: Maider Aldalur, Hirigintzako administraria.

15. KLAUSULA. Proposamenak irekitzea

Kontratazio-mahaiak «A» artxibo elektronikoa irekiko du eta bertan dauden agiri administratiboak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango du, lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioan antzeman diren eta konpon daitezkeen akats edo egin ezak zuzentzeko.

Ondoren, balio-judizioaren mendeko haztapenaren araberako irizpideak dituen «B» artxibo elektronikoa irekiko eta aztertuko du.

Proposamen horiek irakurri ondoren, Mahaiak beharrezkotzat joko dituen behar adina txosten tekniko eskatu ahalko du, aipatu proposamenak Agiri honetan ezarritako irizpideen eta haztapenen arabera baloratu ahal izateko.

16. KLAUSULA. «C» artxibo elektronikoa irekitzea

Kontratazio-mahaia berriro bilduta, balio-judizioaren mendeko irizpideei emandako haztapena emango du ezagutzera. Segidan, «C» artxibo elektronikoa irekiko da.

Balio-judizioaren mendeko haztapeneko irizpideen («B») balorazioa eta haztapen automatikoko irizpideen («C») balorazioa ikusi ondoren, Kontratazio-mahaiak kontratuaren esleipenduna proposatuko du.

17. KLAUSULA. Agiriak eskatzea

Kontratazio-organoak eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari honako eskaera egingo dio: eskakizuna jasoko duen biharamunetik kontatzen hasita hamar egun baliodunen epean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA

Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 140.1 artikuluan jasotzen diren aurretiko baldintzak betetzen dituela justifikatuko duten agiriak aurkez ditzala eta horretarako hamar laneguneko epea izango du, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

a) Eskaintzailea **pertsona juridikoa denean**, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, dagokion epigrafean, Alta emanda dagoenaren ziurtagiria.
Modu berean, parte hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Pertsona fisikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna Nortasunaren Agiri Nazionalaren fotokopia aurkeztuz egiaztatuko da; halaber, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, dagokion epigrafean, alta emanda daudela egiaztatuko da.

c) Alegatutako kaudimen ekonomikoaren, teknikoaren eta profesionalaren irizpideen egiaztapena.

d) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela adieraziko duten ziurtagiriak.

e) Dagokionean, 76.2. artikuluak dioenaren arabera, kontratua burutzeko jartzera konprometitu den baliabideak benetan dituela egiaztatuko duen agiria.

f) Dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 75.2 artikuluan jasotzen den konpromisoa.

g) Bidezkoa den behin betiko bermea jarri izana egiaztatuko duen agiria.

h) Modu berean, enpresa esleipendunak **erantzukizun zibileko poliza** bat kontratatu duela egiaztatu beharko du (edo poliza formalizatu izanaren agiria), **600.000,00 euro arteko**

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

gutxieneko estaldurarekin. Hau da, esleipendunak indarrean dagoen aseguru bat izan behar du, kontratuaren xede den zerbitzua prestatzean enpresa esleipendunaren eta bere menpeko langile iraunkor edo aldiko langileen ekintzen, haiek erabiltzen dituzten makinen eta kontratuaren xedea den zerbitzuaren ondorioz hirugarrenei sortutako kalteak estaliko dituena. Zentzu horretan, Udala edozein erantzukizun subsidiariotik kanpo geratuko da.

Enpresa esleipendunak polizaren kopia bat aurkeztu beharko du udaletxean, kontratua formalizatu aurretik.

Esandako epean eskatutakoa behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da; ondorioz zigor moduan lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren, BEZ kanpo, ehuneko 3a exijitu ahalko zaio eta zenbateko hori behin-behineko bermera jota gauzatuko da, berme hori eratuta egongo balitz.

Aurreko lerraldian jasotako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordena jarraituz.

18. KLAUSULA. Behin betiko bermea

Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak, eskainitako azken prezioaren % 5eko bermea jarri duela egiaztatu beharko du, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Berme hori Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan zehaztutako moduetako batean eman ahal izango da.

Bermea ez da itzuliko edo kitatuko berme-epea amaitu arte eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme horrek, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 110. artikuluan jasotako kontzeptuei erantzungo die eta, kontratua amaitu zenetik 6 hilabete igaro eta gero, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik onarpen formalik eta kitapenik egin ez bada, aipatu 110. artikuluan jasotako erantzukizunak argitu ondoren bermea itzuli edo baliogabetu egingo da, gehiago luzatu gabe.

Bermea eratu izana baliabide elektronikoak erabilita egiaztatu ahalko da.

19. KLAUSULA. Kontratua esleitzea

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du eta, horretarako, dokumentazioa jasoko den biharamunetik kontatzen hasita bost egun baliodunen epea izango du.

Ezingo da lizitazio bat hutsik utzi, agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamen bat baldin badago.

Esleipena arrazoitua izango da eta hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profila argitaratuko da 15 eguneko epean.

Esleipena egiteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzeko lehen ekitaldiaren egunetik kontatzen hasita.

20. KLAUSULA. Kontratua formalizatzea

Kontratua formalizatzerakoan burutuko da.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 44. artikuluak dioenaren arabera, kontratazio-alorreko errekurtso berezia aurkeztearen mende dagoen kontratua izanik, kontratua ezingo da formalizatuko esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidali eta hamabost laneguneko epea igaro baino lehen.

Aipatu hamabost egun horiek igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, enpresa esleipendunari kontratua sinatzea eskatuko zaio eta hori jakinarazpena jasoko duen biharamunetik kontatzen hasi eta gehienez bost eguneko epean egingo da.

Kontratistak kontratua eskritura publikoan jasotzea eska dezake; kasu horretan, bere kontura joango dira sortuko diren gastuak.

Esleipendunari leporatutako arrazoiengatik kontratua esandako epearen barruan formalizatzen ez bada, lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren ehuneko 3a exijituko zaio, BEZ barne, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenbizi, behin betiko bermera jota ordainduko da, berme hori eratuta egonez gero.

Kontratuaren formalizazioa eta dagokion kontratua argitaratu egingo dira, kontratazioa kontratatzailearen profilean eta *Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean* jaso eta hamabost egun baino luzeagoa izango ez den epean.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

21. KLAUSULA. Kontratua betetzea eta kontratua betetzeko baldintza bereziak

Esleipendunak hainbat obligazio bete beharko ditu zerbitzua prestatzean. Horrela, adostutako jarraitasunarekin eskaini behar du zerbitzua eta partikularrek zerbitzua ezarritako baldintzetan jasotzeko duten eskubidea bermatuko du; zerbitzuaren ordena ona zainduko du; zerbitzua eskaintzeak eskatzen dituen eginbeharren ondorioz hirugarrenei sortuko zaizkien kalte-galerak ordainduko ditu, Administrazioari leporatutako kausen ondorioz sortu direnean izan ezik. Modu berean, Administrazioak nahitaezko polizia-aginpideak izango ditu zerbitzuaren martxa ona ziurtatzeko.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua betetzeko ondorengo baldintza bereziak ezartzen dira:

21.1. <u>Kontratua burutu ahal izateko, lan-alorreko baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez</u>:

1. Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

2. Kontratistak, eskainitako kontratuan jasotako jarduera sartzen den sektoreko maila behekoeneko arloko azken hitzarmenean jasotako lan-baldintzak aplikatu beharko dizkie kontratua gauzatuko duten langileei. Kontratua indarrean dagoen bitartean eta hura berritu arte, aipatu hitzarmenaren testuan jasotako baldintzak, gutxieneko baldintzak izango dira kontratuaren xede diren jarduerak beteko dituzten langileak kontratatzeko.
Kontratuaren xede diren lan-zentroetako batek hitzarmen edo ituna adostuta izanez gero, bertan jasotakoak lan-zentro horretan edo horietan lan egiten duten langileei aplikatuko zaizkien gutxieneko baldintzak izango dira, bai hitzarmena indarrean dagoen bitartean bai hura berritu arte, eta, betiere, aplikagarria den arloko hitzarmenean jasotakoak baino baldintza hobeagoak badira. Bertan jasoko ez denerako, indarrean dagoen maila behekoeneko arloko hitzarmen kolektiboan jasotakoa aplikatuko da.

3. Lizitatzaileek, esleipendun suertatuz gero, kontratuaren helburu den jarduera gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko dute; modu berean, behin kontratua esleitu eta gero, lizitatzaileek langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatuko zaien informazio guztia eman beharko dute.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

4. Kontratuaren xede den zerbitzua eskainiko duten langileei aplikatu zaien Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

5. Lizitatzaileek lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz (eta prozesu horiek bukatu arte) sortzen diren datu guztiei, gardentasun instituzionala emango dietela onartu behar dute borondatez.

21.2. <u>Kontratu hau gauzatzeko, derrigorrez bete beharko dira ondorengo baldintza berezi hauek, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez</u>:

1.- Esleipendunak kontuan hartuko du genero ikuspegia kontratua gauzatzean sortuko diren txosten, idatzi, datu-bilketa, estatistika,… guztietan; halaber, hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko ditu sortuko diren dokumentu eta euskarri guztietan.

2.- Dokumentuetan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkuntzaren ez sexista erabiliko da eta emakumeen edo estereotipo sexisten irudi diskriminatzailea erabiltzea saihestuko da. Halaber, balio hauek sustatuko dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero-rolen eta -identitateen aniztasuna.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz 9/2017 Legearen 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea ekar dezake edo kontratua etetea eragin dezake, 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

22. KLAUSULA. Alderdien eskubideak eta betebeharrak

22.1 Kontratistari ordaintzea

Kontratuaren prezioa kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta onartu ondoren ordainduko da.
Fakturak formatu elektronikoa izango du, Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legean jasotakoaren arabera.

22.2 Lan-obligazioak, gizarte arlokoak eta gardentasunekoak

Kontratistak lan eta gizarte segurantza arloetan indarrean dagoen araudia betetzeko obligazioa du. Modu berean, honako legerietan jasotakoa betetzeko obligazioa du: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege-dekretuan jasotakoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa, Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotakoa, Prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege-dekretuan jasotakoa eta kontratua gauzatuko den epean zehar promulgatuko diren arauetan jasotakoa.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

Modu berean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren esleipendunak aipatu arauan, eta udal mailan emango diren arauetan, aurreikusitako obligazioak betetzeko nahitaezko informazio osoa eman behar dio Administrazioari, hark hala eskatuz gero.

22.3 Subrogazioa.

2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 130. artikuluan araututakoaren arabera, **kontratu hau subrogatu** egingo da, eta esleipendunak enplegu-emaile gisa subrogatu beharko du **III. ERANSKINEAN** zehaztutako lan-harremanetan.

Aipatu III. eranskinean jasotako informazioa gaur egun zerbitzua eskaintzen duen enpresak emandakoa da. Horren haritik, subrogazioa eman eta gero, laneko kostuak aurreko kontratistak kontratazio-organoari eskaini dion informaziotik ateratakoak baino handiagoak baldin badira, kontratistak zuzenean aurreko kontratistaren aurkako eskaria egin ahal izango du.

Modu berean, kontratistak subrogatuak izan diren langileei ordaindu ez zaizkien soldatak eta sortutako Gizarte segurantzako kotizazioak ordaindu beharko ditu kontratistak, baita kontratua ezeztatzen bada eta kontratista berriak langile haiek subrogatuta hartu baditu ere; horrelakoetan, obligazio hori ez da azkeneko kontratistarena. Kasu horretan, aipatu soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, Administrazioak kontratistari sor zaizkion diru-kopuruak atxikiko ditu aipatu soldatak ordainduko direla bermatzeko; horrezaz gain, Administrazioak ez du behin betiko bermea itzuliko ordainketa horiek egin direla egiaztatuko ez den bitartean.

22.4. Kontratua indargabetzeko kausa izan daitezkeen funtsezko obligazioak.

Ondorengo hauek izango dira kontratua betetzeko funtsezko obligazioak:

a. Esleipendunak aurkeztutako proposamenean jasotakoa bete beharko du, kontraturako ezarri diren esleipen-irizpideen arabera baloratu den guztiari dagokionez.

b. Esleipendunak administrazio-baldintza zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak bete beharko ditu azpikontratazioari, langileen subrogazioari eta kontratua gauzatzeko baldintza bereziei dagokienez.

c. Esleipendunak, kontratua betetzeko giza baliabideak jartzeari dagokionez administrazio-baldintza zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak bete beharko ditu.

d. Esleipendunak, indarrean dagoen araudian eta segurtasun- eta osasun-planean jasotako segurtasun- eta osasun-neurriak zorrotz bete beharko ditu.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

e. Esleipendunak, langileen soldatak eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenak ordainduko ditu, baita Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak ere.

Kontratuaren funtsezko obligazio horiek betetzen direla kontrolatzeko, esleipendunak hiru hilean behin ondorengo informazioa aurkeztuko du kontratua izapidetu duen unitate administratiboan:

— Soldatak ordaindu direla eta Gizarte Segurantza ordaindu dela egiaztatuko duten agiriak, baita azpi-kontratistei egindako ordainketen frogagiriak ere.

— Segurtasun eta lan-osasun arloan dituen obligazioak betetzeko egiten dituen esku-hartzeen gaineko txosten espezifikoa, hiruhileko bakoitzean horren gainean eman diren gorabeherak adieraziz.

Kontratuaren udal arduradunak txosten bat egingo du justifikazio horren betetzeari buruz. Txosten horretan, halaber, bereziki jasoko da kontratua kudeatzen duten langileei dagokienez, klausula honetan zehaztutako obligazioak betetzen direla.

Aldeko txosten hori jaso gabe, ez da dagokion faktura ordainduko eta berehala emango zaio hasiera dagokion zigor-espedienteari edo kontratua indargabetzeari, dagokionaren arabera.

23. KLAUSULA. Azpikontratazioa

Kontratuaren helburu diren prestazio osagarrien azpikontratazio partziala onartzen da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 215. artikuluan ezarritako baldintzetan eta terminoetan.

Azpikontratazioa ondorengo oinarrizko baldintzak betez egin beharko da:

a) Esleipendunak, egin nahi duen azpikontratu bakoitzaren gaineko ondorengo datuak jakinaraziko dizkio Udalari aldez aurretik eta idatziz:

- Azpi-kontratista zein den, bere datu pertsonalak, gaitasuna eta kaudimena.
- Azpi-kontratistak kontratuko zein alderdi gauzatuko dituen.
- Azpikontratatuko diren prestazioen zenbatekoa.

b) Ezingo dira Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna galdu duten pertsonak edo enpresak azpikontratatu. Modu berean, ezingo dira azpikontratu nahi diren prestazio zehatzak

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

eskaintzeko behar den gaitasuna, kaudimena eta gaikuntza profesionala ez duten pertsona eta enpresak azpikontratatu.

c) Azpikontratazioa egingo duen kontratistak, azpikontratatuko dituen lanak hasi aurretik lan horiek gauzatuko dituzten langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatu beharko du, ezkutuko enplegua erregularizatu eta kontrolatzeko eta etxebizitzen zaharberritzea sustatzeko neurriei buruzko apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa betetze aldera.

d) Kontratistak azpikontratazioaren langileen ordezkariak informatu beharko ditu, lan legerian ezarritakoaren arabera.

e) Azpi-kontratistek kontratista nagusiaren aurrean bakarrik geratuko dira behartuta Udalaren aurrean kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa bere gain hartzera; eginbehar hori administrazio-baldintza zehatzen agirian eta kontratuan jasotakoaren arabera egingo da. Baina Udalak azpikontratazio horiek daudela jakiteak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatzen.

f) Kontratistak azpi-kontratistek gauzatuko dituzten prestazioengatik adostutako prezioa ordaindu beharko die, merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak jartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan gutxienez. Hori betetzen dela bermatzeko, Udalari bidaliko zaion fakturazio bakoitzarekin batera, kontratistak kontratu honen baitan azpikontratatu dituen enpresek edo autonomoek aurreko hilabetean egin dituzten lanak ordaindu dituela egiaztatuko duen agiria aurkeztu beharko du.

24. KLAUSULA. Kontratu-aldaketak

Administrazioak kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak alda ditzake baina soilik interes publikoko arrazoiengatik eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203tik 207ra bitarteko artikuluetan aurreikusitako egoerak ematen badira.

25. KLAUSULA. Kontratistaren ondorengoa izatea

Enpresak edo horien jarduera-adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin. Kasu horietan ondorengoak bere gai hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak ematen badira.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa Administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.
Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko kaudimen-baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik amaitutzat emango da kontratua.

26. KLAUSULA. Kontratua lagatzea

Kontratua laga ahal izango da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 214. artikuluan jasotako mugekin eta baldintzekin:

a) Kontratazio-organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.

b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20a eginda izan behar du.

c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.

d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

27. KLAUSULA. Kontratua ez betetzeagatik jarri beharreko zigorrak

27.1 Atzerapenengatiko zigorrak

Esleipenduna behartuta dago kontratua gauzatzeko epea eta kontratazio-organoak ezarritako gainerako epe partzialak betetzera.

Esleipendunak, berari leporatutako arrazoiengatik, ezarritako epe osoa ezin bete eta atzerapenetan sartzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea, edo egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko, BEZ kanpo.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala horretarako ezarri den epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo lehen ezarritako zigorrak ezartzea.

27.2 Zigorrak, prestazioa ez gauzatzeagatik edo akatsez gauzatzeagatik.

Oso larritzat joko da, esleipendunak baldintza zehatzen agiri honetan kontratua gauzatzeko 21. klausulan jasotako baldintza berezietako edozein ez betetzea.

Ez betetze horiek kontratua amaitzeko arrazoia izan daitezke, honako kasuetan izan ezik: egindakoa gauza isolatua dela eta konpondu egin daitekeela uste denean eta kontratua amaitzea dagokion zerbitzuaren interesaren kalterako izan daitekeenean; azkeneko kasu horretan kontratua amaitu ordez dagokion zigorra ezarriko da.

Kontratuaren ez-betetze oso larri horiek zigor hertsagarriak ezartzea ekarriko dute berekin: esleipen-prezioaren % 5era artekoa, BEZik gabe, arau-hauste bakoitzeko eta/edo epea beteko ez den egun bakoitzeko, larritasunaren, araua behin eta berriz hautsi denaren eta araua haustean fede txarra egon denaren arabera.

Kontratistak azpikontratazio arloan ezarritako obligazioak betetzen ez baditu, azpikontratatutako zenbatekoaren % 10era arteko zigorra ezarriko zaio, eta hori behin eta berriz gertatzea kontratua amaitzeko arrazoia izango da.

Esleipendunak kontratuko beste edozein obligazio betetzen ez badu edo behar bezala betetzen ez badu, kontratuaren prezioaren % 5erainoko zigor hertsagarria ezarriko zaio, larritasun handiagoa edo txikiagoaren arabera eta behin eta berriz obligazio horiek betetzen ez baditu.

Esleipendunari ezarriko zaizkion zigorrek ez dute kontratista berak Udalari edo Udalaren aurka joateko eskubidea izan dezaketen hirugarrenei kalte-galeren ordaina egiteko obligaziotik aske uzten.

Esleipendunak berak egindako eskaintzaren alderdi batzuk betetzen ez baditu, kontratistari exijituko zaion galte-galeren ordainean honako diferentzia sartuko da: esleipendunaren eskaintzaren eta berak bete ez duen irizpidea kontuan hartu gabe kontratua eskuratuko lukeen hurrengo kontratistaren artean dagoen aldea.

27.3 Zigorrak ezartzea

Kontratua ez betetzeagatik zigor eta kalte-galeren ordain horiek ezarri ahal izateko espediente kontrajarri sumarioa jarraituko da. Espediente horretan, salaketa egin ondoren 5 egun naturaleko epea emango zaio kontratistari alegazioak aurkez ditzan. Alegazio horiek eta zigor espedientea

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

Alkateak edo berak izendatuko duen zinegotzi ordezkariak erabakiko du, zerbitzuko udal arduradunaren txostena eta txosten juridikoa jaso eta gero. Erabaki horrek administrazio bidea agortuko du.

Udalak zigor horiek ezartzeko espedientea gertakarien berri idatziz jasoko duen unean bertan hasiko du. Edozelan ere, ez-betetzeak lanen gauzatze materialean modu larrian eraginik izango ez duela edo zigor espedientea hasteak on egin baino kontratuaren gauzatzearen martxa kaltetu egingo duela uste bada, espediente hori edozein unetan hasi ahalko da, kontratuko berme-epea amaitu baino lehen beti ere.

Ezarritako zigor eta kalte-galeren ordainak berehala gauzatuko dira eta Udalak kontratistari ordaindu gabe dituen dagozkion ordainketetatik kenduta kobratuko dira. Ordaindu beharreko kopururik ez balego, kobratzeko geratzen dena behin betiko bermearen kontura kobratu ahal izango da eta ezarritako bermea zigorraren zenbateko osoa kitatzeko nahikoa ez bada, premiamenduzko administrazio bidea erabilita erreklamatu ahalko da, zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartzen delako.

28. KLAUSULA. Kontratua suntsiaraztea

Kontratua amaitzeko arrazoiak baldintza-agiri honetan eta azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua amaitzea, ofizioz zein kontratistak hala eskatuta.

Horrezaz gain, kontratazio-organoak indargabetu ahalko du kontratua, hura gauzatzeko ezarritako epe totala betetzen ez denean edo epe partzialak betetzen ez direlako ustez epe totala beteko ez dela aurreikusten denean eta, baldin eta 27. klausulan jasotakoaren arabera, kontratazio-organoak dagozkion zigorrak ezartzea erabakitzen ez badu.

Modu berean, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 211.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua amaitzeko arrazoiak izan daitezke kontratazio-organoak funtsezko obligaziotzat jo dituenak ez betetzea.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Kontratua esleipendunaren erruz suntsiaraziko denean, behin betiko bermea konfiskatu egingo da. Administrazioari sortutako kalte-galerak bermearen kopurua gainditzen badute, diferentzia indemnizatu egingo zaio Administrazioari.

29. KLAUSULA. Kontratuaren arduraduna

Kontratua esleitzeko erabakian kontratua gauzatzeaz arduratuko den udal teknikaria izendatuko da. Arduradun horrek azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako funtzioak izango ditu.

30. KLAUSULA. Jarraipenaz eta betetzeaz arduratuko den Unitatea

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen zerbitzua izango da kontratuaren jarraipena egiteaz eta ohiko betetzeaz arduratuko dena.

31. KLAUSULA. Isilpekotasuna eta datuen tratamendua

31.1 Konfidentzialtasuna

Enpresa esleipendunak (datuen tratamenduaz arduratuko dena) eta langileek, osotasun eta isilpekotasun printzipioak betez, segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte jasoko dituzten datu pertsonalak; halaber, baimendu gabeko tratamenduaren edo tratamendu ez-zilegiaren aurka babestu behar dute eta datuak galtzearen, suntsitzearen edo ezusteko kalteen aurka babestu behar dute, baliabide tekniko eta antolakuntzako egokiak aplikatuz, betiere Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan eta pertsona fisikoen babesari buruzko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari (datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) dagokionez.

Obligazio hori sekretu profesionalaren betebeharraren osagarria da eta indarrean iraungo du datuak tratatzeko ardura duenarekin (Udalarekin) kontratua amaitu bada ere.

31.2 Datuen tratamendua

Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko Lege Organikoan eta datuak babesteko Erregelamendu orokorrean ezarritakoa betez, lizitatzaileek jakin behar dute eskaintza aurkeztean eta kontratazioari ekiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa entregatzean jasoko diren izaera pertsonaleko datuak, kontratuaren gauzatzea behar bezala mantendu, bete eta kontrolatzen dela

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

bermatzeko helburuarekin erabiliko dituela Udal honek.

32. KLAUSULA. Kontratuaren araubide juridikoa

Kontratuak izaera administratiboa izango du eta hura prestatzea, esleitzea, ondorioak zehaztea eta iraungitzea Agiri honetan ezarritakoaren arabera egongo da. Bestalde, bertan aurreikusi ez den guztirako honako lege, dekretu eta arauetan jasotakora joko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea; Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2001 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-dekretua; Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartu duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege-dekretua, 817/2009 Errege-dekretua indarrean sartu den arte indarrean egon den bitartean. Osagarri gisa, zuzenbide administratiboaren gainerako arauak eta, egonik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratua betetzetik alderdiren artean sortuko diren auziak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende egongo dira, beti ere azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 27.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. **Kontratazio-prozeduraren izapideak egiteko (dokumentuak bidali, kontratua sinatu, jakinarazpenak jaso,….) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak**

1.1. Baldintza administratiboak:

a) Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- FNMT (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- Nortasun agiri nazional elektronikoa
- Camerfirma (Entitatea, Herritarra)

b) Egoera hauetako batean egotea:

- Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea.
- Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman alta emanda egotea.
- Bi operadore edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

1.2. Baldintzak teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazio lotura honetan aurkitu daiteke:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945016298. Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da.

Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik froga bat egitea.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25
EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

2. Lizitazio elektronikorako sistemara sartzeko modua:

Sistema erabiltzeko ondorengo atarian sartu beharko da:
www.contratacion.euskadi.eus

II. JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK.

- Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformako egoitza elektronikoaren bidez egingo dira. Bertara honako helbidetik sartu behar da: http://www.contratacion.euskadi.eus.
- Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horretarako zehaztutako helbide elektronikora.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

LEGAZPIKO UDALA

II. ERANSKINA: EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra aurkezten duenean, lizitazio-prozeduran honetan parte hartzeko agiri honetan zehaztutako AURRETIKO BALDINTZAK betetzen dituela egiaztatzen du.

Lizitatzaileek Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztu behar dute. Agiri hori erantzukizunpeko adierazpena da, non lizitatzaileek kontratazio publikoaren prozedura batean parte hartzeko enpresen egoera finantzarioa, gaitasunak eta egokitasuna azaltzen duten. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. artikuluaren arabera eta 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Europar Batzordearen Betearazteko Erregelamenduaren arabera, non agiriaren inprimaki normalizatua jasotzen den eta hura betetzeko jarraibideak ezartzen diren.

Kontratazio-organoak, «A» ARTXIBO ELEKTRONIKOAN aurretik aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko dituen eskumenak erabili ahal izango ditu. Horretarako, dokumentu bidezko dagozkion frogagiriak aurkeztea eskatuko du, 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Edozelan ere, lizitatzaileak Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra aurkeztean honako konpromisoa eskuratzen du: kontratua esleitzeko proposamena bere alde egiten bada, 17. klausulan aurreikusitakoaren arabera Agiri hori ordezkatzen duten egiaztagiriak aurkeztuko dituela.

2.- EKAB inprimaki normalizatua.

Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarraren inprimaki normalizatua lizitatzaileen esku dago ondorengo helbide elektronikoan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak:

Aurreko ataletan aipatu diren kontratatzeko gaitasunaren, kaudimenaren eta debekuetan sartuta ez egotearen baldintzak, eskaintzak aurkeztuko diren azkeneko egunean bete beharko dira eta kontratua sinatuko denean mantenduko dira.

Horretarako eskumen nahikoa duenak sinatu behar du adierazpena.

Kontratuaren xedea **sortatan bereiztea** aurreikusiko denean, sorta batetik bestera eskatuko diren kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren edo tekniko eta profesionalaren baldintzak aldatzen badira, sorta bakoitzeko EKAB bat aurkeztuko da.

Eskatutako baliabideen atxikitzea lizitatzailearenak ez diren kanpoko baliabideekin betetzen bada, EKAB bat aurkeztuko du lizitatzaileak eta beste EKAB bat aurkeztuko da kontratuari atxikitako baliabide bakoitzeko.

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

Enpresa bat baino gehiago **aldi baterako enpresa-elkartea** eratuta aurkezten direnean, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du, guztiek eta bakoitzak EKAB inprimaki normalizatu bat aurkeztuta.

Aurreko lerraldian aipatu den adierazpenaren edo adierazpenen gehigarri gisa, enpresa-elkartea osatuko duten enpresek aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko hartu duten konpromisoa aurkeztuko da.

Euskadiko Autonomia Elkarteko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatuta dauden enpresak** ez daude erregistro horietan eguneratuta dituzten datuak ematera behartuta, baldin eta EKAB inprimaki normalizatuan hori horrela dela jasotzen badute. Edozelan ere, lizitatzailearen egitekoa da erregistro horietan zein datu dauden benetan sartuta eta eguneratuta eta zeintzuk ez ziurtatzea. Aipatu Lizitatzaileen Erregistroetan eskatutako daturen edo informazioren bat jaso gabe dagoenean edo eguneratuta ez dagoenean, inprimakia betez aurkeztuko beharko da.

Europako Kontratazio Agiri bakarraz gain, **atzerriko enpresek**, Espainian gauzatuko dituzten kontratuen kasuetan, kontratuan sor litezkeen (zuzenean zein zeharka) gorabehera guztietarako edozein mailako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende egongo direla esango duen adierazpena aurkeztu beharko dute eta, edozelan ere, uko egingo diote lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-eskumenari.

4.- <u>Kontratatzailearen profilean dago prozedura honetarako egokitu den inprimaki berezia duen XML artxiboa</u>.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA

III. ERANSKINA SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN DATUAK

Categoría	Cód Contrato	Tipo Contrato	% Jornada Laboral	Fecha Antigüedad	Convenio	Salario Bruto
PEON MAQUINISTA	200	INDEFINIDO. TIEMPOPARCIAL. ORDINARIO	70	15/11/2004	LIMPIEZA VIARIA GIPUZKOA	S/ Convenio
PEON MAQUINISTA	100	INDEFIN-T.COMPL.- ORDINARIO	100	01/07/1990	LIMPIEZA VIARIA GIPUZKOA	S/Convenio
PEON LIMPIADOR	200	INDEFINIDO. TIEMPOPARCIAL. ORDINARIO	45	31/05/2014	LIMPIEZA VIARIA GIPUZKOA	S/Convenio
ENCARGADO	100	INDEFINIDO A TIEMPO PARCIAL	10	06/05/1993	LIMPIEZA VIARIA GIPUZKOA	Pacto empresa 4827,23€ / año (10%)

**Convenio Colectivo de Limpieza Viaria y Recogida de Residuos Sólidos Urbanos de Gipuzkoa (código 20002275012004)

Legazpiko Udala • IFK: P2005500J • Euskal Herria plaza, 1 - 20230 LEGAZPI • 943 73 70 30 • 943 73 72 00 • haz@legazpi.eus • www.legazpi.eus

CSV: 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004E3E900V6I2Y9B8O4I6E7B0P7B1B2Z3Q9 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

AINHOA URRUELA BORDEGARAY-Kontratazio eta giza baliabideetako teknikaria - 27/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2022 12:09:25

EXPEDIENTE :: 2022KIRO00009
Esp.Data: 27/04/2022
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL